**AKTEA/15**

# BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
**(2024-05-07)**

| | |
|---|---|
| **Batzarraren izaera:** | Ohikoa |
| **Deialdia** | 1. deialdia |
| **Data:** | 2024-05-07 (Asteartea) |
| **Lekua:** | Irakaskintza kalea 14-16<br>(Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela) |
| **Hasiera-ordua:** | 08:05 |
| **Amaiera-ordua:** | 08:19 |
| **Alkate-Presidentea:** | NEMEH SHOMALY NADIA |
| **Batzordekideak:** | ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA<br>URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>ORTUZAR BUTRON XABIER<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE<br>CARUEZO UGALDE MAITE |
| **Bertaratu ez direnak:** | |
| **Idazkaria:** | LEJARRAGA URIARTE JURDANA |



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-04-30 TGB (14)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- Txibitxiaga Bloke 3ko jabe elkarteak fatxadak birgaitzeko obra lizentziaren uko egiteko eta fidantza itzultzeko eskaria onartzea.

4.- Txibitxiaga kalea 2ko eraikinaren fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

5.- 2024 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikuluak idazteko eta argitaratzeko deialdi publikorako oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

6.- IURRETA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udala erakundearen arteko Hezkuntza-lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.

8.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

## 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-04-30 TGB (14)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko apirilaren 30eko 14/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

## 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez daukatela adierazi dute.

## 3.- TXIBITXIAGA BLOKE 3KO JABE ELKARTEAK FATXADAK BIRGAITZEKO



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**OBRA LIZENTZIAREN UKO EGITEKO ETA FIDANTZA ITZULTZEKO ESKARIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Txibitxiaga Bloke 3ko jabe elkarteak eraikinaren ekialdeko eta hegoaldeko fatxadak birgaitzeko obra lizentzia uko egite eta fidantza itzultzeko eskariaren inguruko ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2022ko maiatzaren 9an Txibitxiaga taldeko 3an obra lizentzia eskatu zuen dagokion dokumentazio osagarriarekin.

Bigarrena.- 2022ko ekainaren 7an Tokiko Gobernu Batzarrak Txibitxiaga blokea 3an kokatutako eraikinaren ekialdeko eta hegoaldeko fatxadak birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

Hirugarrena.- 2024 urtarrilaren 24an 78.876.812-Z N.A.N zenbakidunak, Txibitxiaga bloke 3 jabe elkartearen izenean, honako eskaera egin zuen:

"*En Grupo Txibitxiaga bl3 se solicitó licencia para la fachada, siendo que Dª Idoia Platas nos comunicó que se paralizaba porque el plan de regeneración urbana de la zona y que nos los devolverían.*

*Solicitar la devolución de la fianza y de las licencias de la obra que finalmente no se va realizar, por la adhesión al plan PIIE 22-25, dado que en breve tenemos que abonar la licencia según ese plan*"

Laugarrena.- 2024ko otsailaren 2an Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikoak txosten hau egin zuen.

Bosgarrena.- 2024ko otsailaren 19an Ekonomia, Ondare eta Errentako teknikariak txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2024ko maitzaren 2an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Urigintza, Obra eta Ingurumenen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak eta Ekonomia, Ondare eta Errentako teknikariak, eskatzailearen eskaera aztertuta, hurrengokoa ezarri dute eskatzaileak eskatutakoaren inguruan:

1.- Emandako lizentziaren uko egitea. Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak adierazten du Administrazio Erkidearen Prozeduraren 39/2015 Legeak honako xedapen hauek ezartzen dituela horri buruz:



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

***"Artículo 94. Desistimiento y renuncia por los interesados.***

*1. Todo interesado podrá desistir de su solicitud o, cuando ello no esté prohibido por el ordenamiento jurídico, renunciar a sus derechos.*

*2. Si el escrito de iniciación se hubiera formulado por dos o más interesados, el desistimiento o la renuncia sólo afectará a aquellos que la hubiesen formulado.*

*3. Tanto el desistimiento como la renuncia podrán hacerse por cualquier medio que permita su constancia, siempre que incorpore las firmas que correspondan de acuerdo con lo previsto en la normativa aplicable.*

*4. La Administración aceptará de plano el desistimiento o la renuncia, y declarará concluso el procedimiento salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación en el plazo de diez días desde que fueron notificados del desistimiento o renuncia.*

*5. Si la cuestión suscitada por la incoación del procedimiento entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, la Administración podrá limitar los efectos del desistimiento o la renuncia al interesado y seguirá el procedimiento."*

Bai eskaera batean atzera egitea, bai eskubide bati uko egitea, interesdun orok duen ahala da, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

Doktrinak eta jurisprudentziak (hala nola, beste batzuen artean Auzitegi Goreneko 1993 maiatzaren 20ko epaia) Eskubideei uko egiteko, persona bat bere alde eskuratutako edo aitortutako eskubide batetik ondorioztatzen den egintza kontziente eta aske bat dela ulertzen da.

Lizentzia bati uko egitea eraginkorra izan dadin, honako ezaugarri hauek bete beharko dira:

Eskaera espresua izatea. Hau da, jurisprudentziak hala adierazten duen bezala, argia eta zehatza izan behar du eta horri buruz izapidetzen den espedientean jasota egon beharko du.

Bestalde, udalak atal batzuk aztertu beharko ditu. Legeak ez duela debekatu behar eskubideari uko egitea, uko eiteko eskubideak uko egin duenaren interes indibidulari bakarrik begiratu beharko diola, hau da, ez du beste hirugarren batzuei kalterik egin behar. Azkenik, prozedura amaitzeko ebazpena eman beharko da.

Eskaeran eta aurkeztutako dokumentazioan ikus daitekeenez, ondoriozta daiteke honek egiten duen uko egite eskaera argia dela, horren objektua lizentzia bera izanda. Horretaz gain, eskaera espediente printzipalarekin lotuta dago (*2022/IDA_ERA_0119*), beraz, ez dago arazorik uko egitearen ezaugarriak beteta



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50 | DOCUMENTO: 20241017063<br>Datea: 08/05/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

antzemateko.

Azkenik, puntu honi buruz teknikariak gogoratzen du 39/2015eko Legeak bere 84.artikuluan adierazten duena prozeduraren amaierari buruz:

"***Artículo 84. Terminación.***

*1. Pondrán fin al procedimiento la resolución, el desistimiento, la renuncia al derecho en que se funde la solicitud, cuando tal renuncia no esté prohibida por el ordenamiento jurídico, y la declaración de caducidad*."

2.- Ordaindutako tasa eta zergen itzulketa. Honako puntuari dagokionez, Ekonomia, Ondare eta Errentako teknikariak bere txostenean lehengo eta behin Hirigintza eta Ingurumena zerbitzuetan tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren arauak islatzen ditu. Hala nola, ordenantza fiskal honi dagokionez, hurrengokoa nabarmendu daiteke kasuari aplikatuta:

- Ordenantza fiskalaren 5. artikuluak (*tasaren kuota*), egite ezargarri bakoitzaren tasa kuota finkatzen du, 2.2. epigrafean (*Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020, 01 eurotik gorako kostudunak*) tasa kuota 1.534,33 eurokoa izanik.

- Ordenantza fiskalaren 8.artikuluaren, kudeaketa arauei dagokion atala, 4.puntuan adierazten da "*Tasaren zenbatekoa adierazitako moduetako edozeinetan sortu ondoren ordainduko da. Eskatzaileak uko eginez gero, eta hirigintza zerbitzu publikoa eman bada, ez da ordaindutako tasa itzuliko"*.

Bestalde, teknikari honek zergaren itzulketaren atalara igarotzen da, bere azalpena oinarritzeko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren arauak ekartzen ditu hizpidera, hurrengoko xedapenak nabarmenduz:

- Ordenantza fiskalaren 2. artikulua (*zerga egitatea*), pretzeptu hau adierazten du udalerri honetan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak eratzen duela haren zergapeko egitatea, baldin eta horretarako obra- edo hirigitnza-lizentzia lortu beharra badago, lizentzia hori aurretik eskuratu ala ez, edo ardura-adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztea eskatzen bada, betiere, lizentzia hori ematea udal honi badagokio.

- Bestalde, ordenantza fiskalaren 16.artikulua nabarmentzen da batez ere artikulu horren lehengoko puntua non adierazten baiten "*eraikuntzak edo instalazioak ez egitea, idatziz jakinarazi beharko dio udalari eta honek behin behineko likidazioa*



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*itzuliko dio, edo, bestela, osorik utzi balio barik."*

Azkenik, Ekonomia, Ondare eta Errentako teknikariak, aipatutako ordenantza fiskalak kontuan izanda, ondorioztatzen du Hirigintza eta Ingurumena zerbitzuen tasa ez zaiola itzuli behar eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga itzuli behar zaiola.

3.- Jarritako fidantzen itzulketa. Eskari honeri begira, Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak adierazten du, espedientea ikusita, 2022ko maiatzaren 24an Urigintzako teknikariak bi fidantza eskatu zituela:

"• *Hondakinen kudeaketarako 1.465,20 euroko fidantza.*

• *Aldamuek lurzoru publikoa okupatuko dabenez, urbanizazioan sortu daitekeezan kalteak bermatzeko, 1.000 euroko fidantza."*

Fidantza horiek 2022ko maiatzaren 24an gordailatu ziren. Besteak beste, fidantza hauek aldamuek eta hondakin kudeaketa ez egokia eragin ditzaketen kalteak bermatzeko ezartzen dira. 2024ko otsailaren 1ean udal arkitektoak honakoa adierazi zuen berak egindako bere txostenean:

"*Txibitxiaga blokeko 3an dagoen eraikinean 2022ko ekainaren 7an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako obra lizentzian zehazten ziren lanak ez dira gauzatu*."

Hortaz, ikusita udal arkitektoak adierazten duen bezala obrarik egin ez direla, fidantzen objektua hutsik geratu dela, ez baituzte kalte posibleren bat bermatzen, eta hortaz, egokiena da hauek eskatzaileari itzultzea.

Hirugarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2.artikulua eta Toki-administrazio Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak Lizentziak emateko eskubidea du. Hala ere, obra lizentziei uko egiteko eskumena ez da ez Urigintza eta Lurzoruaren 2/2006 Legean ezta Toki-administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legean espresuki adierazten. Hortaz, aipatutako azkeneko lege honen 21.s). artikuluari jarraiki, *klausula subsidirarioa*, obra lizentziei uko egiteko eskaria onartzeko eskumena alkatearena da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

LEHENENGOA.- 2022ko ekainaren 7ko Tokiko Gobernu Batzarraren Txibitxiaga blokea 3an kokatutako eraikinaren ekialdeko eta hegoaldeko fatxadak birgaitzeko obra lizentziaren uko egitea onartzea eta espedientea amaitutzat ematea.

BIGARRENA.- Aurreko erabakiarengatik likidatutako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga itzultzea.

HIRUGARRENA.- Aipatutako erabakiarengatik likidatutako Hirigintza eta Ingurumena zerbitzuen tasa ez itzultzea.

LAUGARRENA.- 2022ko maiatzaren 24an hondakinen kudeaketarako 1.465,20 euroko fidantza eta aldamuek lurzoru publikoa okupatzeagatik, urbanizazioan sortu daitezkeen kalteak bermatzeko, 1.000 euroko gordailatu ziren fidantzak itzuli eskatzaileari.

BOSGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau Urigintza, Obra eta Ingurumen, Errenta, Ekonomia eta Diruzaintzako sailei jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki hau hurrengoko Osoko Bilkuran berri ematea.

**4.- TXIBITXIAGA KALEA 2KO ERAIKINAREN FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Bermeoko Txibitxiaga kalea 2 zenbakiko eraikinaren fatxadaren birgaitzeko obra lizentziaren eskariaren ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023ko martxoaren 15ean M.M.Q. andreak, H48595722 I.F.Z. zenbakidun Bermeoko Txibitxiaga kalea 2 zenbakiko jabe elkartearen izenean, eraikinaren fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskaria egin zuen dagokion dokumentazio aurkeztuz.

Bigarrena: 2023ko ekainaren 6an interesdunak dokumentazioa aurkeztu zuen.

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 11n Bermeoko Udaleko arkitektoak txostena egin zuen.

Laugarrena: 2024ko urtarrilaren 3an interesdunak dokumentazio osgarria aurkeztu zuen.

Bosgarrena: 2024ko martxoaren 12an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Ingurumen Sailera atxikita dagoen arkitektoak txostena egin zuen.

Seigarrena: 2024ko martxoaren 20an eskatutako fidantzak gordailatu ziren.

Zazpigarrena: 2024ko martxoaren 21ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Zortzigarrena: 2024ko maiatzaren 2an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

**Oinarri juridikoak**

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, Bermeoko Txibitxiaga 2 kaleko jabe elkartearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 21871978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator, kasuari aplika dakizkiokeen gainerako legeetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Bigarrena: Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2023ko martxoaren 15ean M.M.Q. andreak, H48595722 I.F.Z. zenbakidun Bermeoko Txibitxiaga kalea 2 zenbakiko jabe elkartearen izenean, eraikinaren fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskaria ematea onartzea.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei.

- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da kokapena eta azalera udalarekin adostuz.

- EKTari dagokionez, Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR,DB/HS)

- Fibrozimenduzko plakak kendu beharko balira, martxoaren 31koa den amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 396/2006 Errege Dekretuaren xedapenak, errespetatuko dira edota aplikaziozkoa den araudi espezifikoan xedatutakoan.

- Kanpoaldeko espako hiritar eta irisgarriaren oihalak osatzen dituzten fatxaden eta gainerako itxituren definizioak eta tratamenduak harreman harmoniatsua bermatu beharko dute aldameneko fatxada eta itxiturekin. Lizentzia emateko erabili den proiektuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta gaur egun dauden kolore berberak erabili beharko dira, eraikuntza-multzoaren harreman harmoniatsua hausten ez dutenak.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

<u>HIRUGARRENA</u>: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazinoa. Obra amaierako dokumentazinoa obra-zuzendari izan diran arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazinoa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo,azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispenmaterialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkaritzak abalatuta.

<u>LAUGARRENA</u>: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

<u>BOSGARRENA</u>: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obraren aurrekontua 301.265,57€koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei hilbaetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonei kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamio eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun esklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK**

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan…

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.

b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebehar hori.

c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.

d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.

e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.

f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.

g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikuluak xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikuluak xedatzen dauenaren arabera.

h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.

i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.

j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkero, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.

k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik,



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzinoa. Kontratisteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:
- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkero udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkero, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizazinorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak… euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkero, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajean, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.

- 100 metro koadru bakotxeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.

- Oinaren okupazinoa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.

- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.

- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.

- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.

- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizidadea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.

- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazino eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horrretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazinoak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.

- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:

- CTE
- CTE-DB-SI
- CTE-DB-SE
- CTE-DB-SUA
- CTE-DB-HS
- CTE-DB-HE
- CTE-DB-HR

- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

  Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazinoetako azpiegitura komunentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.

- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazinoa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.

- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazinoen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.

- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako datea, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.

- Obra hondakinak eta lurrak mobitea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako “Prevención de Riesgos Laborales” Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurrak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurrak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazino bidean, eta, erabagi horren aurka



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazino honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazinoarekiko Auzien Jurisdikzinoaren 58. artikuluaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**HIZTEGITXOA**

| | |
|---|---|
| **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** | Recurso Contencioso-Administrativo |
| **Aireztatze-hodiak** | Conductos de ventilación |
| **Aireztatze-tximinia** | Chimenea de ventilación |
| **Arau subsidiarioak** | Normas subsidiarias |
| **Araudia** | Normativa |
| **Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala** | Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia |
| **Azpiegiturea** | Infraestructura |
| **Baldintzea** | Condición |
| **Bizigarritasun-zedulea** | Cédula de habitabilidad |
| **Epemugea** | Vencimiento |
| **Eraikina** | Edificio |
| **Erantzukizuna** | Responsabilidad |
| **Esan-multzoa** | Párrafo |
| **Eskegitokia** | Tendedero |
| **Harri-zolea** | Empedrado |
| **Ildo ofizialak** | Líneas oficiales |
| **Iraungi** | Caducar |
| **Jabeen erkidegoa** | Comunidad de propietarios |
| **Kitapena** | Liquidación |
| **Legegintzako Errege-Dekretua** | Real Decreto Legislativo |
| **Lerrokadurea** | Alineación |
| **Loiea** | Lonja |
| **Meategia** | Mina |
| **Objektu narriagarria** | Objeto que puede deteriorarse |
| **Obra-hondakindegia** | Escombrera |
| **Oholtzea** | Tablado |
| **Oina** | Planta |
| **Onuraduna** | Beneficiado |
| **Orubea** | Solar |
| **Oztopo arkitektonikoak** | Trabas arquitectónicas |
| **Salbuetsita** | Exento |
| **Sarbidea** | Acceso |
| **Trenkadea** | Mampara, tabique |
| **Urbidea** | Conducción de agua |
| **Urigintzea** | Urbanismo |
| **Zergea** | Impuesto |
| **Zigilua** | Sello |
| **Zuinketa Aktea** | Acta de Replanteo |

**5.- 2024 URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO LIBURUKO ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO DEIALDI PUBLIKORAKO OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.**

**Xedea**

2024 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikuluak idazteko eta argitaratzeko deialdi publikorako oinarriak onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Urtero, Bermeoko jaietako liburuan artikuluak argitaratzen dira,



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

laguntza moduan.

Bigarrena: 2015 urtean, lehenengo aldiz, Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak lankidetzan, oinarriak finkatu eta deialdi publikoa egitea proposatu zuten.

Hirugarrena: Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak adostuta, oinarriak gaurkotu egin dira.

**Argudioak**

Lehenengoa: Oinarrietan, jaietako liburuko artikuluei buruzko zehaztasun guztiak adierazten dira.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartu da, Tokiko Gobernu Batzarrak deialdi hau egiteko ahalmenaren delegazioa.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024. urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuan artikuluak idazteko eta argitaratzeko oinarriak onartzea.

BIGARRENA: 2024ko uztailaren 1era arte deialdia zabaltzea eta ATB Sailari udaleko web orrian dagokion iragarkia argitaratzeko agindua ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen barri Kultura eta Hezkuntza Sailari, Euskera Sailari eta ATB Sailari jakinaraztea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

**6.- IURRETA LHII IKASTETXEAREN ETA BERMEOKO UDALA ERAKUNDEAREN ARTEKO HEZKUNTZA-LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

**Xedea**

IURRETA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udala erakundearen arteko hezkuntza-lankidetza hitzarmena sinatzea.

**Aurrekariak**

Bakarra: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

> “Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Bigarrena: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

> “1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…)

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanle guneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean,



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.

24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
31. Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.

35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea."

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzeen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emanda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 45.993.758-Z NAN zenbakidunaren eskaria onartzea.

BIGARRENA: IURRETA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko Hezkuntza-lankidetza hitzarmena onartzea eta, horretarako, alkatea ahalmentzea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

**7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkatetza dekretuen berri eman da.



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50

DOCUMENTO: 20241017063
Datea: 08/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**8.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E8000F84E700L1Q4Z3N1D9Y4 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/05/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 08/05/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/05/2024 10:08:50 | DOCUMENTO: 20241017063<br>Datea: 08/05/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|